

### 3. Eranskina. Hezkuntza Sortzaileari buruzko informazioa

Arno Stern-ek (2008) egindako aurkikuntza baten arabera, gizakiok Formulazio bat daukagu. Honek esan nahi du, trazu eta irudiak egiterako orduan, guztiok antzeko gauzak irudikatzen ditugula. Hau, gure geneetan dagoela esan dezakegu, eta baldintza zehatz batzuetan azaleratzen ditugu.

Stern-ek, formulazioaren aurkikuntza hau, marrazketarekin egin zuen, baina denborarekin beste motatako esparru batzuetara zabaldu da (buztina, mugimendua, etab.). Stern judutar Alemaniarraren, hainbat urte ihesean egon ostean, Frantzian gelditu zen. Bertan, umezurztegi batean lan egiten zuen, gerragatik umezurtzak gelditu zirenei laguntzeko. Stern-ek ez zekien ezer hezkuntzaz, eta beraz, marrazten ipini zituen umezurtz guztiak. Bera, ez zeukanez inolako hezkuntzarik, umeak askatasun osoz utzi zituen, inolako epaiketarik egin gabe, ezer galdetu ezta gairik proposatu gabe. Modu honetan denborarekin konturatu zen antzeko formak egiten zituztela, nahiz eta ume guztiak ezberdinak izan.

Idea horretatik abiatuta, baldintza sozial guztiz ezberdineko pertsonekin frogatu nahi izan zuen. Honetarako, Afrikako, Hego Amerikako... zenbait eskolarizatu gabeko tribuetara joan zen eta beste hainbat herrialdetara. Espazioa baldintza antzekoekin prestatu zuen leku guztietan, eta hemen bai, Formulazioa unibertsala zela frogatu zuen.

Honekin, ondorioztatu zen, baldintza egokiak aurkeztuz, edozein pertsonaren adierazpena ahalbidetzen dela, eta askotan guztiok antzeko figurak sortzen ditugula barruan daukaguna adierazteko.

Baldintza hauen artean, hurrengo ezaugarri hauek aurki ditzakegu:

- Espazioaren kudeaketa

Hemen barruan, espazio pertsonala eta kolektiboa aurkitzen ditugu jokoan. Uneoro, ekintza hauetan parte hartzen duten pertsonak bi esparru hauetan lan egiten ibiltzen dira, leku bakoitzaren ezaugarrietara moldatuz.

Espazio pertsonalean, bakoitzak berea egiten du inolako kanpo eraginik gabe. Baina aldi berean, alboko kidea errespetuz, kontutan hartu beharko du. Espazio kolektiboan ere, azken hau gertatzen da. Materiala elkarbanatu behar den tokia baita.

- “Zerbitzaria”-ren papera

Garrantzitsua da bertako arduradunak bete behar duen papera, ekintza hau aurrera eraman ahal izateko. “Zerbitzari” izena eman zitzaion, parte-hartzaileen zerbitzura dagoelako, hau da, haien lana ahalik eta hoberen egiteko, laguntzen duen pertsona izango litzateke. Baina, argi izan behar

da, pertsona honek ez duela ezer baldintzatuko, baizik eta lana erraztu besterik ez du egingo. Honetarako, beti parte-hartzaileak baino pausu bat atzerago egongo da, hau da, ez du haien ikasketa "lapurtuko".

- Materiala

Adierazpenerako baldintza egokiak betetzeko, beharrezkoa da material egokiak izatea. Baliabideek, azken finean, eragin zuzena dute pertsonen garatu nahi dutena ahalbidetzen dutelako. Baina hala ere, ez da funtsezko gauza bat, egoera bakoitzera moldatu behar baita.

- Parte hartzen duten pertsonen ezaugarriak

Honelako ekintzetan beharrezkoa da pertsonen berezitasunak edo ezberdintasunak duen garrantzia aipatzea. Hemen edozein pertsonarentzako lekua dago eta normalean ez dira adin bereko bi pertsona aurkitzen. Horrela, genero, adin eta ezaugarri ezberdinetako pertsonak daude elkarlanean. Honek, onura asko ekartzen ditu, elkarrekiko konpetentzia edo epaiaketak alde batera uztea ahalbidetzen duelako. Horrela guztion berezitasunetatik ikasten da eta sortzen diren harremanak zintzoagoak izaten dira, bakoitza berezia sentitzen baita.